



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko maiatzaren 31

72. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, klima aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko Foru Lege proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Galdera, Baztango Aroztegia Jauregiaren inguruan sustatutako turismo-, hotel-, kirol- eta egoitza-eremuaren Udalez gaindiko Plan Sektorialeko urbanizazio-obrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, 2021eko aurrekontuan Kideak programara bideratutako baliabideen destinoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Aroztegiko Udalez gaindiko Plan Sektorialeko obren hasierari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, la celebración de onomásticas o cumpleaños de personalidades de la cultura navarra buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, espetxeko tailer eta batzar errestauratiboei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Zigor Betearazpenaren Nafarroako sistemari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Lodosako Cabizgordoko industrialdeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, espetxe arloko eskumenak Nafarroari eskualdatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, zigor betearazpenaren eredu berriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, “Ega-Urederra ibaiak” izeneko Batasunaren Garrantzizko Lekuko Kontserbazio Bereziko Eremuaren (KBE) kudeaketa-gastuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Allosko (Deierri) lurzatiak biltzeko prozesuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, klima aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko Foru Lege proiektuari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, klima aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko Foru Lege proiektuari buruzkoa. Galdera 2021eko apirilaren 23ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gobernuak klima aldaketari eta trantsizio

energetikoari buruzko foru lege proiektua onetsi eta hura Parlamentuari igortzeaz daukan aurreikuspenari buruz (10-21-PES-00148). Hori dela eta, hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Gaur egun, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Legearen aurreproiektua Gobernuaren Idazkaritzako eta Araugintzako Zerbitzuari igorri zaio, txostena eman dezan. Gero, Gobernu-bilkurarako helaraziko da, onetsi eta Nafarroako Kontseiluari igortzeko. Ondoren, prozesu hori hala bideratzen denean, berriro ere Gobernu-bilkurara itzuliko da, Parlamentuari foru lege proiektu gisa igortzeko.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 14an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

Galdera, Baztango Aroztegia Jauregiaren inguruan sustatutako turismo-, hotel-, kirol- eta egoitza-eremuaren Udalez gaindiko Plan Sektorialeko urbanizazio-obrei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Baztango Aroztegia Jauregiaren inguruan sustatutako turismo-, hotel-, kirol- eta egoitza-eremuaren Udalez gaindiko Plan Sektorialeko urbanizazio-obrei buruzkoa. Galdera 2021eko apirilaren 23ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu-Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 10-21/PES-00149 idatzizko galdera egin du. Hona hemen Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoe-tako kontseilariak horri buruz jakinarazi beharrekoa:

1.- Baztango Aroztegia Jauregiaren inguruan sustatutako turismo-, hotel-, kirol- eta egoitza-eremuaren Udalez gaindiko Plan Sektorialaren Konpentsazio Batzordeko kide den heinean, zer neurri hartuko ditu Nafarroako Gobernuak aipatu batzordearen jarduketa legezketasunari egokitu dakion eta bete dezan Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiak uztailaren 23an emandako 64/2019 Erabakian ezarritakoa?

Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiaren 64/2019 Erabakiak, uztailaren 23koak, baietsi egin zuen kontratazio publikoaren alorreko erreklamazio berezia, Juan Ignacio Barcos Pérez jaunak "Langile Abertzaleen Batzordeak (LAB)" sindikatuaren ordezkari gisa jardunez aurkezturikoa honako honen aurka: "Plegu arauemailea, Baztango Aroztegia Jauregiaren inguruan sustatutako turismo-, hotel-, kirol- eta egoitza-eremuaren Udalez gaindiko Plan Sektorialaren Konpentsazio Batzordearen urbanizazio-proiektuko urbanizazio-obraren lehen faseko obraren kontrataziorakoa". Plegu hori balio gabetu eta deklaratu zuen ezin zela adjudikazio-prozedurarekin jarraitu.

Zuzendaritza Nagusiak jakin zuen, bere teknikarietako batek Konpentsazio Batzordean duen ordezkariaren bitartez, 2019ko irailaren 20an Konpentsazio Batzordeak eginiko bileraren gainerendari jasotako puntu bat zela berrespena ematea Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiak emandako 2019ko uztailaren 23ko Erabakiaren aurka Batzordeko buruak 304/2019 zenbakiko Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteari. Aipatu erabakiak balio gabetu egiten du urbanizazio-obren lehen fasearen kontratazio baldintza-plegua, eta deklaratu du ezin dela aurrera jarraitu adjudikazio-prozedurarekin. Aipatu akta Konpentsazio Batzordeak eginiko azken batzarrean onetsi da, 2021eko maiatzaren 3an.

Bestalde, Baztango Udalak, zuzendaritza nagusi honi 2021eko martxoaren 11n bidalitako idazki bidez, jakinarazi du ezen Administrazioarekiko auzien salak, 137/2020 epaiaren bitartez, 2020ko ekainaren 15ekoa, ezetsi egin zuela Batzordeak aurkezturiko errekurtsioa, eta berretsi egin zuela Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiak emandako 64/2019 Erabakia, uztailaren 23koa, zeinaren bidez balio gabetu egiten baitzuen "Plegu arauemailea, Baztango Aroztegia Jauregiaren inguruan sustatutako turismo-, hotel-, kirol- eta egoitza-eremuaren Udalez gaindiko Plan Sektorialaren Konpentsazio Batzordearen urbanizazio-proiektuko urbanizazio-obraren lehen faseko obraren kontrataziorakoa" deitutakoa eta deklaratu baitzuen ezin zela adjudikazio-prozedurarekin jarraitu. Arrazoia zen ordenamendu juridikoaren arabera zela.

Azkenik, enpresa sustatzaileak, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoe-tako kontseilariari aurkezturiko idazki baten bidez, jakinarazi du ezen, errekurtsioa ezetsia izan ondoren, kasazio-errekurtsoa prestatzeko idazki bat aurkeztu zela 2020ko irailaren 18an, Auzitegi Gorenerako eta Nafarroako Auzitegi Nagusirako, eta izapidetzeko onartua izan da 2020ko azaroaren 3ko auto baten bitartez. Geroago, maiatzaren 3an, batzordeak eginiko azken batzarrean, batzordeko buruak berri eman zuen bai Kontratuen Administrazio Auzitegiaren erabakiaren aurkako aipatu administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren ezespenez, bai kasazio-errekurtsoa aurkezteaz.

Kasuaren zertzeladak ikusita, bai eta alderdiek aipatu eta aurkezturiko dokumentazioa ere, epai hori ez da irmoa, eta horren behin-behineko betearazpenik ere ez da eskatu; horrenbestez ondoriozta daiteke ez litzatekeela Konpentsazio Batzordearen jarduketa ilegalik egonen urbanizazio-obren hasierari dagokionez; dena den, horri buruz, komeni da Departamentu honen posizio juridikoa argitzea:

Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusia ez da eskudun Aroztegiko Udalez gaindiko Plan Sektorialeko urbanizazio-obren egite-prozesua gainbegiratzeko. Foru Administrazioak, bere eskumenen esparruan jardunez, lurralde-plangintzako tresna egokia izapidetu du; hots, Lekarozko (Baztan) "Aroztegia Jauregia" Udalez gaindiko Plan Sektoriala eta horretatik eratorritako birpartzelazio- eta urbanizazio-proiektuak. Halere, Baztango Udalaren eskumena da urbanizazio-obren gainbegiratzea eta zaintza. Administrazio hori da obra-harrera eginen duena, kasuko bermeak eta abalak exigituko dituena eta berme-epeak amaitu ondoren itzuliko dituena exigitutako bermeak. Azkenik, urbanizazioaren kontserbatze- eta mantentze-lanen eskumena izanen du, horren harrera egin ondoren. Berriro ere heltzen diogu Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko Zuzendari Nagusiaren azaroaren 28ko 765E/2017 Ebazpenaren edukiari, zeinaren bidez behin betiko onesten baita Udalez gaindiko Plan Sektorialeko urbanizazio-proiektua. Bertan esaten da Baztango Udala dela urbanizazio-obren segimenduaren eta haiek amaitutakoan haien harrera egitearen arduradun.

Zuzendaritza Nagusia urbanizazio-obrak gainbegiratzeko eskudun ez den neurrian, komeni da jada esatea ez dela eskudun, era berean, Konpentsazio Batzordearen balizko jarduketa ilegal bati buruzko ezein espediente izapidetzeko ere.

Gainera, une honetan, eta ez denez irmoa Konpentsazio Batzordeak aurkezturiko errekurtsua ezesten duen eta Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiaren uztailaren 23ko 64/2019 Erabakia berresten duen epaia, ez da bidezkoa neurririk hartzea ilegala ez den jarduketa bati aurre egiteko.

Azkenik, komeni da argi uztea ezen, edozein kasutan ere, ezin dela hizpide hartu Kontratuen Administrazio Auzitegiaren erabakiaren betearazpena, baizik eta, izatekotan, erabaki hori berresten duen Auzitegi Nagusiaren epaiaren betearazpena izanen litzatekeela bidezkoa. Gai horretaz hauxe dio Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 91. artikulua:

"1. Kasazio-errekurtsuaren prestaketak ez du eragotziko errekurituriko epaiaren behin-behineko betearazpena.

Epaia beren aldeko duten alderdiek epaiaren behin-behineko betearazpena eskatu ahaliko dute. Betearazpen horretatik edonolako kalteak erator litezkeenean, zilegi izanen da kalte horiek ekidin edo apaltzeko egoki diren neurriak hartzea. Orobat, kalte horietaz erantzuteko kausioa edo bermea aurkeztea exigitu ahaliko da. Ezin izanen da behin-behineko betearazpenik egin harik eta erabakitako kausio edo neurria eratuta eta autoetan frogatuta egon arte.

2. Kausio-eraketa egin beharko da lege honen 133.2 artikuluan xedatuari jarraikiz.

3. Kasuko auzitegiak behin-behineko betearazpena ukatuko du baldin eta horrek egoera atzerazinak edo konpontze zaileko kalteak erakar baditzake.

4. Kasazio-errekurtsu bat prestatutzat jotzen denean, Justizia Administrazioako legelariak autoen eta ebazpen errekurrituaren lekukotza aski utziko du, artikulua honetan aipaturiko ondorioetarako".

Beraz, kasazio-errekurtsua printzipioz ez da inolako eragozpena epai baten behin-behineko betearazpenerako, baldin eta, betiere, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 91. artikulua aurreikusten dituen betekizunak betetzen badira.

Alabaina, epaiaren behin-behineko betearazpena eskatu ahal duen bakarra da instantzian alderdi izanik (prozesuko alderdi bilakaturik) epaia bere aldekoa izan duena.

Zentzu honetan doa Auzitegi Gorenaren 2014ko otsailaren 20ko Autoa (1783/2012 zenbakiko kasazio-errekurtsua):

"Auto horietan, ukatu egin dugu Fiskaltzak behin-behineko epai-betearazpeneko in-tzidenteetan jaulkitako autoak errekurritzeko legitimazioa izatea, jurisdikzio-legeak bere 91. artikuluan mugatu egiten baitu hura eskatzeko ahalmena "epaia beren aldeko duten" alderdi-tara, horrela erreferentzia eginik, beraz, eta beste izapide batzuetan ez bezala, behin-behinekoz betearazi nahi den ebazpena jaulki zen prozeduran prozesu-alderdi gisa eratu direnei –2009ko martxoaren 18ko epaia–, 1104/2007 kasazio-errekurtsua –doktrina hori errepikatu egiten da geroago, 2009ko maiatzaren 11ko epaian, 3924/2007 kasazio-errekurtsua, eta 2010eko urtarrilaren 14koan, 5228/2007 kasazio-errekurtsua–. Ohartarazten du ezen "epaia beren aldeko duten

alderdi” espresioak nolakotasun bikoitz bati egiten diola erreferentzia. Batetik, ezinbestean behar duela izan prozesuan “alderdi” izandako bat. Bestetik, prozesuko alderdi horri “bere aldekoa”, edo onuragarria, suertatu zaiola epaiak erabaki duena (...).

Zentzu horretan, nabaria da legitimazioaren estalmena ezberdina dela epaien erabateko betearazpena lortzeko –Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko Legeko 109.1 artikulua, prozesuko alderdiez gain, “epaitzak erasandako pertsoneri” ere ematen die– eta behin-behineko betearazpenerako, ezen 91. artikulua, “epaia beren aldeko duten” alderdietara murrizten duenez, prozesuko alderdietara mugatzen du”.

Administrazio hau ez da alderdi izan administrazioarekiko auzien prozesuan, non ez LAB sindikatua ez eta Baztango Udala ere ez baitziren pertsonatu. Horrenbestez, ezinezkoa da behin-behineko epai-betearazpena eskatzea.

2.- Obren hasiera jakinarazi al zaio Lurralde eta Paisaia Zerbitzuari? Horrela jasotzen zen Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusiaren 2017ko azaroaren 28ko 765E/2017 Ebazpenean, non behin betiko onetsi baitzen Baztango Aroztegia Jauregiaren inguruan sustatutako turismo-, hotel-, kirol- eta egoitza-eremuaren Udalez gaindiko Plan Sektorialaren Konpentsazio Batzordearen urbanizazio-proiektua.

Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko Zuzendari Nagusiaren azaroaren 28ko 765E/2017 Ebazpenak, zeinaren bidez behin betikoz onesten baita Udalez gaindiko Plan Sektorialaren urbanizazio-proiektua, honako zehaztapen hau jaso zuen: “Adierazten da obra-hasieraren eta -amaieraren datak behar besteko aurrerapenez jakinarazi beharko zaizkiola Lurralde eta Paisaia Zerbitzuari eta Baztango Udalari, azken erakunde horrek ardura izaki urbanizazio-obren segimenduari eta obra horien bukaeran haien harrera egitearen gainean”.

Aipatu zehaztapena beterik, Salvador Urbistondo Arotzarena jaunak, Baztango Aroztegia Jauregiaren inguruan sustatutako turismo-, hotel-, kirol- eta Egoitza-eremuaren Udalez gaindiko Plan Sektorialaren Konpentsazio Batzordearen buru bezala, eta horren izenean eta ordezkartzaz, 2003ko martxoaren 3an Lurraldearen Antolamenduko Zuzendaritza Nagusi honi jakinarazi zion ezen zuinketa-aktaren sinatzea (urbanizazio-obren hasiera markatzen duena), hasiera batean

2021eko martxoaren 8rako aurreikusita bazegoen ere, 2021eko martxoaren 18ko 10:00etarako finkatuta geratzen zela, Aroztegia Jauregiaren inguruetan.

Horrenbestez, dokumentu bidezko froga dago urbanizazio-obrak aipatu datan hastekoak izatearen jakinarazpenari buruz.

Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du Baztango Aroztegia Jauregiaren inguruan sustatutako turismo-, hotel-, kirol- eta egoitza-eremuaren Udalez gaindiko Plan Sektorialaren Konpentsazio Batzordeari zehapen-espediteren bat irekitzea obrak legez kanpo hasteagatik?

Lehenik eta behin, lehenbiziko galderari emandako erantzunean adierazi den bezala, Zuzendaritza Nagusia urbanizazio-obrak gainbegiratzeko eskudun ez den neurrian, ez da eskudun, era berean, Konpentsazio Batzordearen balizko jarduketa ilegal bati buruzko ezein zehapen-espeditente izapidetzeko ere. Zehapen-espeditente bat ireki eta izapidetzea udalari legokioke.

Baina, hala izanen balitz ere, ez da ahaztu behar Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiaren uztailaren 23ko 64/2019 Erabakia berresten duen epaia ez dela irmoa, kasazioan errekurrituta dagoenez gero; horregatik, ez da Batzordearen jarduketa ilegalik sumatzen, zehapen-espeditente bat irekitzea oinarrituko duenik.

4.- Aurreikusi al du Foruzaingoaren bidez errekerimenduren bat egitea, Konpentsazio Batzordeak eta obra horiek legez kanpo egiten ari den enpresak berehala geldiaraz ditzaten?

Aurreko galderen erantzunetan jada azaldutako arrazoiengatik, ez dago asmorik, begi-bistakoa denez, Foruzaingoari inolako errekerimendurik egiteko:

– Administrazio honek ez du obrak gerarazteko eskumenik.

– Obrak ez dira ilegalki egiten ari, Auzitegi Nagusiaren epaia ez baita irmoa eta ez baita eta ezin baita eskatu horren behin-behineko betearazpenik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduari 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 14an

Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaia eta Proiektu Estrategikoetako kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

Galdera, 2021eko aurrekontuan Kideak programara bideratutako baliabideen destinoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2021eko aurrekontuan Kideak programara bideratutako baliabideen destinoari buruzkoa. Galdera 2021eko apirilaren 23ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak galdera hauek egin ditu (10-21/PES-00150), Nafarroako Gobernuak Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dituzten:

“Kideak programa Europako funtsen bidez egiten da azkenean. Departamentuak ezarrita al dauka zer proiektutara bideratuko diren 2021eko aurrekontuan programa horretarako bideratutako baliabideak?”

Hona hemen erantzuna:

Oraindik ez dago zehaztuta zein egunetan jasoko diren Kideak programarako Europako funtsak; horrenbestez, arriskutsua da 2021eko aurrekontuetan programa horretara bideraturiko baliabideen birbideratzea planteatzea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 13an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Galdera, Aroztegiko Udalez gaindiko Plan Sektorialeko obraren hasierari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Isabel Olave Ballarena andreak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Aroztegiko Udalez gaindiko Plan Sektorialeko obraren hasierari buruzkoa. Galdera 2021eko apirilaren 23ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Isabel Olave Ballarena andreak 10-21/PES-00151 galdera egin du, idatziz erantzutetako. Honen bidez, Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estra-

tegikoetako kontseilariak honako hau erantzuten dio:

Nafarroako Gobernuak ba al du Aroztegiko Udalez gaindiko Plan Sektorialeko obrak hasi izanaren ziurtasunik edo Aroztegiko Jauregiaren inguruan legez kanpoko jarduketarik egiten ari denik?

– Aroztegiko Udalez gaindiko Plan Sektorialeko obrak hasi izanaren ziurtasunik Nafarroako Gobernuak izateari buruz:

Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko Zuzendari Nagusiaren azaroaren 28ko 765E/2017 Ebazpenak, zeinaren bidez behin betikoz onesten baita Udalez gaindiko Plan Sektorialearen urbanizazio-proiektua, honako zehaztapen hau jaso zuen: “Adierazten da obra-hasieraren eta -amaieraren datak behar besteko aurrerapenez jakinarazi beharko zaizkiola Lurralde eta Paisaia

Zerbitzuari eta Baztango Udalari, azken erakunde horrek ardura izaki urbanizazio-obren segimenduaren eta obra horien bukaeran haien harrera egitearen gainean”.

Aipatu zehaztapena beterik, Salvador Urbistondo Arotzarena jaunak, Baztango Aroztegia Jauregiaren inguruan sustatutako turismo-, hotel-, kirol- eta Egoitza-eremuaren Udalez gaindiko Plan Sektorialaren Konpentsazio Batzordearen buru bezala, eta horren izenean eta ordezkartzaz, 2003ko martxoaren 3an Lurraldearen Antolamenduko Zuzendaritza Nagusi honi jakinarazi zion ezen zuinketa-aktaren sinatzea (urbanizazio-obren hasiera markatzen duena), hasiera batean 2021eko martxoaren 8rako aurreikusita bazegoen ere, 2021eko martxoaren 18ko 10:00etarako finkatuta geratzen zela, Aroztegia Jauregiaren inguruetan.

Horrenbestez, dokumentu bidezko froga dago urbanizazio-obrak aipatu datan hastekoak izatearen jakinarazpenari buruz.

– Aroztegia Jauregiaren inguruetan jarduketa ilegalik gertatzeari buruz, ez dakigunez galdera ote den jarduketa ilegala hirugarrenek egin izanari ala Konpentsazio Batzordeak berak egin izanari buruzkoa, bi kasu horiei erreparatuz erantzun beharra dago.

Lehenbiziko kasuari dagokionez, argitu beharra dago Baztango Aroztegia Jauregiaren inguruan sustatutako turismo-, hotel-, kirol- eta egoitza-eremuaren Udalez gaindiko Plan Sektorialean sarturiko lurzoruak urbanizagarri gisa daudela sailkatuta; horrenbestez, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztaillaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 203, 204 eta 223. artikuluei jarraikiz, lurzoru urbanizagarrian zehatzeko eta hirigintza-araudia babesteko eskumenak toki entitateei dagozkie. Departamentu honek lurzoru ez-urbanizagarriko obrak edo erabilerak direnean baizik ezin du esku hartu.

Eskumen-esparrua zedarririk eta azaldutako arekiko koherentziaz, ondorioztatu beharra dago Departamentu honek ez daukala dokumentu bitartezko ziurtasunik Aroztegia Jauregiaren inguruetan jarduketa ilegalak egin izanari buruz.

Bigarren kasuari erantzunik, Zuzendaritza Nagusiak jakin zuen, bere teknikarietako batek Konpentsazio Batzordean duen ordezkartzaren bitartez, 2019ko irailaren 20an Konpentsazio Batzordeak eginiko bileraren gai-zerrendan jasotako puntu bat zela berrespena ematea Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiak emandako 2019ko uztaillaren 23ko Erabakiaren

aurka Batzordeko buruak 304/2019 zenbakiko Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteari. Erabaki horren bidez, baliogabetu egin zen urbanizazio-obren lehen fasea kontratatzeke baldintza-plegua, eta deklaratu zen ezin zela adjudikazio-prozedurarekin aurrera segitu. Aipatu akta Konpentsazio Batzordeak eginiko azken batzarrean onetsi da, 2021eko maiatzaren 3an.

Bestalde, Baztango Udalak, zuzendaritza nagusi honi 2021eko martxoaren 11n bidalitako idazki bidez, jakinarazi du ezen Administrazioarekiko Auzien Salak, 137/2020 epaiaren bitartez, 2020ko ekainaren 15ekoa, ezetsi egin zuela Batzordeak aurkezturiko errekurtsoa, eta berretsi egin zuela Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiak emandako 64/2019 Erabakia, uztaillaren 23koa, zeinaren bidez baliogabetu egiten baitzuen “Plegu arauemailea, Baztango Aroztegia Jauregiaren inguruan sustatutako turismo-, hotel-, kirol- eta egoitza-eremuaren Udalez gaindiko Plan Sektorialaren Konpentsazio Batzordearen urbanizazio-proiektuko urbanizazio-obraren lehen faseko obren kontrataziorakoa” deitutakoa eta deklaratu baitzuen ezin zela adjudikazio-prozedurarekin jarraitu. Arrazoia zen ordenamendu juridikoaren arabera zela.

Azkenik, enpresa etxegileak, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariari apirilaren 20an aurkezturiko idazki baten bidez, jakinarazi du ezen, errekurtsoa ezetsia izan ondoren, kasazio-errekurtsoa prestatzeko idazki bat aurkeztu zela 2020ko irailaren 18an, Auzitegi Gorenerako eta Nafarroako Auzitegi Nagusirako, eta izapidetzeko onartua izan da 2020ko azaroaren 3ko auto baten bitartez. Geroago, 2021eko maiatzaren 3an, Konpentsazio Batzordeak eginiko azken batzarrean, berri eman da bai Kontratuaren Administrazio Auzitegiaren erabakiaren aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aipatuaren ezespenaz, bai kasazio-errekurtsoa aurkezteaz.

Kasuaren zertzeladak ikusita, bai eta alderdiek aipatu eta aurkezturiko dokumentazioa ere, epai hori ez da irmoa, eta horren behin-behineko betearazpenik ere ez da eskatu; horrenbestez ondorioztatu daiteke, alderdiek aipatu eta aurkezturiko dokumentazioaren argitan, ez litzatekeela Konpentsazio Batzordearen jarduketa ilegalik egonen urbanizazio-obren hasierari dagokionez; dena den, horri buruz, komeni da Departamentu honen posizio juridikoa argitzea:

Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusia ez da eskudun Aroztegiko Udalez gaindiko Plan Sektorialeko urbanizazio-obren egite-prozesua gainbegiratzeko. Foru Administrazioak, bere esku-

menen esparruan jardunez, lurralde-plangintzako tresna egokia izapidetu du; hots, Lekarozko (Baztan) "Aroztegia Jauregia" Udalez gaindiko Plan Sektoriala eta horretatik eratorritako birpartzelazio- eta urbanizazio-proiektuak. Halere, Baztango Udalaren eskumena da urbanizazio-obren gainbegiratzea eta zaintza. Administrazio hori da obra-harrera eginen duena, kasuko bermeak eta abalak exigituko dituena eta berme-epeak amaitu ondoren itzuliko dituena exigitutako bermeak. Azkenik, urbanizazioaren kontserbatze- eta mantentze-lanen eskumena izanen du, horren harrera egin ondoren. Berrito ere heltzen diogu Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko Zuzendari Nagusiaren azaroaren 28ko 765E/2017 Ebazpenaren edukiari, zeinaren bidez behin betiko onesten baita Udalez gaindiko Plan Sektorialeko urbanizazio-proiektua. Bertan esaten da Baz-

tango Udala dela urbanizazio-obren segimendua- ren eta haiek amaitutakoan haien harrera egitea- ren arduradun.

Zuzendaritza Nagusia urbanizazio-obrak gainbegiratzeko eskudun ez den neurrian, ez da eskudun, era berean, Konpentsazio Batzordearen balizko jarduketa ilegal bati buruzko ezein espediente izapidetzeko ere.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Par- lamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 14an

Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kon- tseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

Galdera, la celebración de onomásticas o cumpleaños de personalidades de la cultura navarra buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artiku- luan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin la Ilma. Sra. D.^a Raquel Garbayo Berdonces egin- dako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, la celebración de onomásticas o cumplea- ños de personalidades de la cultura navarra buruzkoa. Galdera 2021eko apirilaren 23ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Ber- donces andreak idatzizko galdera egin du (10- 21/PES-00152) Nafarroako kulturako pertsona ospetsuen urtebetetzeak eta santu-egunak ospa- tzeari buruz. Hona Nafarroako Gobernuako Kultura eta Kiroleko kontseilariaren erantzuna:

Nafar artisten ikusgaitasunaren mesedetan eta haiek balioan jartze aldera, Baluarte Fundazioak urtero obra bat eskatzen dio nafar konposatzaile bati, bere programazioan sartzeko. 2020an hauta- turikoa Teresa Catalán izan zen, Madrillgo Goi

Mailako Musika Kontserbatorio Errealeko Konpo- sizio eta Instrumentazioko katedraduna, 2017ko Musika Saridun Nazionala, Merezimendu Zibila- ren Ordena 2011n eskuratu zuena eta Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluko kidea (2015- 2020). Horregatik, "Atenearen kasua", aipatu eskaeraren emaitza izandako pieza, urrian estrei- natuko da, Nafarroako Orkestra Sinfonikoak den- boraldirako prestatuko duen programazioaren barrenean.

Jadanik ohikoa denez, estreinaldiaz gain, Baluarte Fundazioak jarduera-egitarau bat presta- tu du Nafarroako beste erakunde batzuekin lankidetzan –Jorge Oteiza Museoa, Nafarroako Errege Artxibo Nagusia, Nafarroako Kutxa Funda- zioa–, konposatzaileari eta haren obrari buruzkoa. Programazio hori, haren 70. urtebetetzearekin bat datorrena, andre horrek konposatzaile, autore, musikologo eta irakasle gisa egin duen ibilbidea- ren oroitarazpena da.

Hori guztia jakinarazi ahal dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 13an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

Galdera, espetxeko tailer eta batzar errestauratiboei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, espetxeko tailer eta batzar errestauratiboei buruzkoa. Galdera 2021eko apirilaren 30eko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak galdera hau egin du (10-21/PES-00153), Nafarroako Gobernuako Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Departamentuak zer aurreikuspen darabil Espetxe Erakundeekin sinatutako hitzarmenaren ondorioz 2021ean espetxeko tailer eta batzar errestauratiboak diseinatzeko, taxutzeko eta abian jartzeko?

Kontseilariak honako erantzun hau ematen du:

Espetxe Erakundeekiko hitzarmena ofizialki sinatu aurretik, espetxeko elkarrizketa errestauratiboen programaren taxuketa lantzen arituak ginen, eta horrek ahalbidetu du gaur den egunean jada hasita egotea lehen aurkezpen-fasea espetxean.

Programa espetxean aurkezteko bi saio egin ziren, apirilaren 8an biak, eta haietan 11 gizonen eta 8 emakumeen parte hartu dute. Saiok izandako harrera onaren ondoren, hirugarren bat antolatu da, erantzun hau parlamentari jaunari ematen zaion egunean eginkizun dagoena, COVID protokoloak aplikatzearen ondorioz geroratze bat egin behar izan ondoren.

Informazio-saio horiek eta gero, interesa dutenek parte-hartzea eskatuko dute, eta horretarako onespina lantalde errestauratiboak (Mediación Navarra) eman beharko du, Zigor Betearazpen eta Justizia Errestauratiboko Zerbitzuaren oniritziarekin, bai eta espetxeko tratamendu-batzarrak ere. Azken onespina Espetxeetako Idazkaritza Nagusiak eman beharko du.

Pertsonen parte-hartzea onetsi ondoren, prozesu errestauratiboei ekinen zaie. Aurten 8-10

prozesu inguru egitea aurreikusten da. Bertan esku hartuko dute presoek, biktimek eta komunitateko kideek, zuzeneko nahiz zeharreko bitartekaritza eta parte-hartze komunitariodun zirkulu errestauratiboak bezalako tekniken bitartez.

Zehazki, eta jarraituko den prozesuaren xehapenean sakontzearen, adieraz dezakegu ezen, behin deribazioa jasota, lantalde errestauratiboak (bitartekaritza eta bestelako teknika errestauratiboetan esperientzia duten pertsonen osatua) esku-hartzea planifikatuko duela. Kasu zehatz bakoitzari egokiturikoa izanen da esku-hartzea, baina honako fase hauen inguruan egituratuko da:

1) Arau-hauslearekiko banakako lana.

Hark errekonozimendurako, erantzule egiteko eta erreparaziorako duen gaitasuna aztertu eta indartzera bideratua. Errekonozimendurako eta erantzule egiteko baldintzak lortzeko moduari buruzko analisi horren barrenean aintzat hartu beharrekoak izanen dira delitu-jokabidean eragina izan duten baldintzatzaile soziala,

2) Biktimarekiko banakako lana.

Biktimarekiko esku-hartzeak goiburu izan behar ditu haren segurtasunaren babesa eta bigarren mailako biktimizazioa ekiditea. Horretarako, Biktimei Laguntzeko Bulegoarekin behar bezalako koordinazioa lantzeari ekinen zaio. Biktimaren Estatutuko 23. artikulua ezartzen duenari jarraituz, biktimen-babes-premiak ebaluatu eta prozesu errestauratiboa hastearen egokitasun edo egokitasunik ezaz aholkatuko dute. Kanpotiko eta aurretiazko ebaluazio hori egin ondoren, lantalde errestauratiboak elkarrizketa bat eginen dio biktimari, haren erreparazio-beharrizanak aztertzeko.

3) Gatazkaren mapaketa: delitua gertatu zen komunitatea eta bertako eragile sozialak aztertzea.

Esku hartzeko eredu hau ahalegintzen da esku-hartze errestauratibo gehienetan dagoen individualismo metodologikoa gainditzen. Horretarako, esku-hartzearen hirugarren faseak ikusmira zabalduko du, eta biktimaren nahiz delitugilearen testuingurua aztertuko, bai eta gatazkaren parte diren gizarte-baldintza orokorrak ere.

4) Lan komunitarioa.

Aurreko fasean aurreikusitako mapaketaren ondoren, kasuko komunitateko zenbait kide hautatu beharko dira, prozesu errestauratiboan parte

har dezaten. Elkarrizketak bideratuta egonen dira haien erreparazio-premiak eta erantzule egiteko eta laguntzeko prozesuetarako dituzten akonpainamendu-gaitasunak ezagutzera.

5) Erreparazio, erantzukizun, birgizarteratze eta gizarte-eraldaketako espazioak taxutzea.

Garapen-araurik berriek adierazi bezala (8/2018 Gomendioa, Europako Kontseiluarena), gune errestitutiboak tresna desberdinen bitartez gauzatu ahalko dira: zuzeneko nahiz zeharkako bitartekaritza, zirkulu errestitutiboak, elkarrizketa-mahaiak, parte-hartze dinamika irekiak, esku-hartze komunitarioko prozesuak eta abar.

Lan-protokoloa alorrean indardun den legediari jarraituz prestatu da; zehazki:

– 4/2015 Legea, apirilaren 27koa, Delituaren Biktimaren Estatutuari buruzkoa.

– Europako Kontseiluaren CM/Rec (2018)8 Gomendioa, zigor-justizia errestitutiboaren alorrekoa.

Programa, jada gomendatua, berriki sortua izan den Zigor Betearazpen eta Justizia Errestitutiboko Zerbitzuak koordinatuko du, zeina halaber arduratuko baita prozesuen segimendua egiteaz. Azken eginkizun horretan, Biktimei Laguntzeko Bulegoaren parte-hartzea izanen du, haien babesa uneoro bermatzearen.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 21ean

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Galdera, Zigor Betearazpenaren Nafarroako sistemari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Zigor Betearazpenaren Nafarroako sistemari buruzkoa. Galdera 2021eko apirilaren 30eko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak galdera hauek egin ditu (10-21/PES-00154), Nafarroako Gobernuo Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

1.- Behin azterlana egin eta zerbitzu berria onetsita, Departamentuak zer urrats egingen du Zigor Betearazpenaren Nafarroako sistema definitzeko?

2.- Bertan jasotzen diren funtsezko ekintzak (jada dauzkagun eskumenez gain beste batzuk gehiago hartzea eskatzen ez dutenak) ezartzeko

lan egingen duzue gehiago itxoin gabe? Baiezkoan, zer epe darabilzue gogoan hori betetzeko?

3.- Foru Gobernuo Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Hezkuntzako arduradunekin adostu edo landu al dira dokumentuan jasotzen diren funtsezko ekintzak? Ezarri beharreko ekintzak nola koordinatuko dira departamentu horiekin?

4.- Departamentuak zer ekimen abiarazi nahi ditu lan hori koordinatzeko?

Kontseilariak honako erantzun hau ematen du:

Ildo estrategikoen dokumentua sortzeko lanen ondorioz, Nafarroako Zigor Betearazpeneko eta Justizia Errestitutiboko Zerbitzua sortu da, atxilotutako, espetxeratutako eta espetxetik ateratako pertsonak birgaitzeko eta gizarteratzeko neurri guztiak koordinatuko eta bultzatuko dituen administrazio-unitate gisa (otsailaren 10eko 9/2021 FD), eta zerbitzu horren zuzendaritzaz arduratuko den pertsona izendatu da (martxoaren 31ko 26/2021 FD).

Zerbitzu hori jada martxan dagoela, aurkeztutako ildo estrategikoak betetzera bideratutako hainbat ekintza egiten ari dira. Jorrotutako gaietako bat da Espetxe Erakundeekin beste hitzarmen bat idaztea, 1989koa eguneratuko duena, Nafarroako Gobernuak espetxe-gaietan duen esku-

hartzea formalizatzeko. Hala ere, jarduteari begira ez gaude hitzarmen horren zain.

Horrela, bada, eta beste ekintza batzuen artean, kudeaketak hasi dira aurretiko txosten psiko-sozialak eginen dituen zerbitzu bat sortzeko, organo judizialek informazio gehiago izan dezaten pertsonen inguruabarretara egokitutako zigorrak edo segurtasun-neurriak ezartzeko. Koordinazio-bilerak egin dira Probintzia Auzitegiko lehendakariarekin eta espetxeko tratamenduaren arloko arduradunekin.

Era berean, Nafarroako espetxe mahaiaren lehen saioa sortu eta deitu da (apirilaren 20a) espetxean lan egiten duten gizarte erakundeekin.

Era berean, bi lantalde sortu dira osasun-gaia aztertzeko:

- Osasun Mentala eta Zigor Betearazpena. Lehen bilera apirilaren 21ean egin zen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Arreta Komunitarioaren eta Osasun Mentaleko Zentroen Arloko ordezkariekin; bigarren bilera, berriz, maiatzaren 7an izan zen, Eskubide Sozialesko Departamentuko atal soziosanitarioko ordezkariekin).

- Espetxeko osasunaren jarraipenerako batzorde teknikoak lehenengo bilera apirilaren 28an egin zuen, Osasun Departamentuko eta Iruñeko espetxeko ordezkariekin.

Azpimarratzekoa da, halaber, Iruñeko Udalarekin garrantzi praktikoa handiko kudeaketa bat egin

dela, eta gizarte-erakundeek ohiko erreklamazio bat egin dutela presoak espetxean erroldatzea errazteko, dagozkien eskubideak gainerako herritarren baldintza berberetan eskuratu ahal izan dituzaten.

Hau da, ildo estrategikoen dokumentua onartu zenetik eta Zigor Betearazpenaren eta Justizia Errestauratiboaren Zerbitzu berria eratu zenetik igaro den denbora-tarte laburrean jorratu diren gaien laburpen txiki bat baino ez da. Ikusten denez, hala ere, bertan jasotako funtsezko gaiak jorratzen hasi dira, eta ahalik eta azkarren inplementatzen jarraituko dira.

Era berean, azpimarratu nahi nuke Zerbitzuak izapideak hasi dituela Nafarroak Justizia Errestauratiboaren Europako Foroan (justizia mota hori sustatzeko nazioarteko erakundea, Europako proiektuetan eta araudiaren definizioan parte hartzen duena) parte har dezan. Gure ustez, garrantzitsua da gure erkidegoa horrelako sareetan egotea, eta sare horietan esperientziak trukatzeko, neurri horiek hobeki eta azkarrago ezarri ahal izateko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 21ean

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Galdera, Lodosako Cabizgordoko industrialdeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Lodosako Cabizgordoko industrialdeari buruzkoa. Galdera 2021eko apirilaren 30eko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak 10-21/PES-00155 zenbakiko galdera egin du, idatziz erantzuteko. Honen bidez, Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak honako hau jakinarazten dizu:

Nafarroako Gobernua, Nasuvinsa sozietate publikoaren bidez, Lodosako Cabizgordo poligonoko Udalez gaindiko Plan Sektoriala (UPS) aldatzen ari da. Plan horren garapena geraturik egon da 2008tik. Herritarrek parte hartzeko prozesua 2020ko otsailean egin eta kanpoko azpiegituren proiektua idazten amaitu ondoren, Nasuvinsak UPSaren aldaketa aurkeztea aurreikusten du, datozen hilabeteetan izapidetzeko (ekaina-uztaila). Aldaketa horren helburua industria-azalera egokitztea da, ahal dela industria-azalera handiak eskatzen dituzten proiektuak ezartzeko.

Era berean, beharrezko azpiegiturak eta urbanizazio-jarduketak arrazionalizatu nahi dira (hori erraztu egin da, neurri handi batean, autobidearekiko lotura finantzatzeko betebeharra kendu delako), etorkizunean faseka garatu ahal izateko, egon daitekeen eskaerari erantzunez. Hori guztia, urbanizatu gabeko eremu osoan egungo nekazaritza-erabilera mugarik gabe konprometitu gabe, jarduera horri eutsi ahal izateko industria-jarduerarako lurzoru-eskaera formalizatu arte.

UPSa behin betiko onartu ondoren, poligonoren lehen fasea konponduko da (desjabetuta dago jada). Fase hori idazteko eta izapidetzeko zortzi hilabete beharko direla aurreikusi da. UPSak kan-

poko azpiegitura batzuen trazaduraren aldaketak eta ondoren zerbitzu horietarako beharrezkoa den lurzorua desjabetzea barne hartuko ditu. Kanpoko azpiegituretako obrak egiteko epea sei hila-beteko da.

Egungo lurzatiak partzialki urbanizatuta daude lehen faseko eremuan (aipatutako kanpoko azpiegiturak falta dira). Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legeak (LAHFL) aukera ematen du urbanizazio- eta eraikuntza-obrak aldi berean egiteko; beraz, hasiera batean, industrialdeak enpresak har ditzake adierazitako zentzuan, industria-instalazioetako obrak kanpoko sareetako obrekin batera eginez, sare horiek amaitzean jarduerari ekin ahal izateko. Ildo horretan, Nasuvinsa sozietate publikoak dagoeneko harremanak izan ditu etorkizuneko industrialdean instalatzeko interesa agertu duten bi enpresarekin, gutxienez.

UPSaren plangintza berriari esker, zuzendu ahal izanen da proiektuak hasieran zuen gehiegizko neurria; izan ere, milioi bat metro koadroko azalera zuen jarduketa-eremu bat aurreikusten zen, eta horrek 31 milioi eurotik gorako inbertsio publikoa eskatzen zuen.

Nasuvinsako zerbitzu teknikoek kanpoko azpiegituren proiektua idazteko lanak ere amaitu dituzte. Proiektu horri esker, industrialdera eramanez ahal izanen dira goi-hornidurako eta industria-erabilerako ur-sareak, bai eta saneamendua ere. Aurreikusita dago obrekin 2022an jarraitzea, UPS berria onartu ondoren, 1,7 milioiko aurrekontuarekin.

Lehenengo faseko urbanizazio-proiektua iazko erdialdean amaitu zen, 1,1 milioi eurotik gorako aurrekontuarekin. Honako hauek hartzen zituen barne: lurzatiak berdintzea eta sarbideak eraikitzea, beharrezko zerbitzuen hargunak egitea eta edateko uraren 480 m³-ko biltegi bat egitea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 21ean

Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

Galdera, espetxe arloko eskumenak Nafarroari eskualdatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, espetxe arloko eskumenak Nafarroari eskualdatzeari buruzkoa. Galdera 2021eko apirilaren 30eko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak galdera hauek egin ditu (10-21/PES-00156), Nafarroako Gobernuko Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Nafarroako Parlamentuak erabaki bat onetsi zuen 2017ko urriaren 2ko Osoko Bilkuran, zeinaren bidez adierazi baitzuen bere borondatea zela Nafarroak Foruaren Hobekuntzan esleituta dauzkan Iruñeko espetxearen gaineko eskumen historikoak balia ditzan.

1.- Nafarroako Gobernuak zer urrats edo zer erabaki hartu ditu harrezkero espetxe arloko eskumena lehenbailehen hartzea joratzeko?

2.-Nafarroako Gobernuak zer urrats edo zer erabaki hartu ditu harrezkero Hezkuntzaren eta Gizarte Ongizatearen arloan duen eskumena balia dezan kalitatezko hezkuntza- eta gizarte-arreta emateko, askatasunaz gabeturiko pertsonen eskubide-berdintasuna bermatuko diena?

3.- Nafarroako Gobernuak zer urrats edo zer erabaki hartu ditu harrezkero presoei, preso ohiei eta beren senideei bizi baldintza duin batzuk ahalbidetzeko espresuki adierazten ziren arloetan?

Kontseilariak honako erantzun hau ematen du:

Parlamentari jaunak aipatzen duen ebazpen parlamentarioa 2017ko irailaren 28an onetsi zen, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialaren 122. zenbakian argitaratu zen 2017ko urriaren 5ean. Horrenbestez, okerra da parlamentari jaunak aipatutako data.

Data dela-eta dagoen zorrotasun falta hori sakoneko gaian ere aurkitzen da. Izan ere, lotsagorritzeko modukoa da egiaztatzea parlamentari jauna saiatzen dela fiskalizazio-lana egiten bere alderdiak berak aurkako botoa eman zuen gaien gainean. Izan ere, gogoratu behar da UPNK eta PPK ez zutela aldeko botoa eman ebazpen horren 1., 2., 3. eta 4. puntuetan. Puntu horietan, hain zuzen ere, parlamentari jaunak lehen galdera egiteko erabili duen espetxe-arloko eskumena bere gain hartzeari egiten zaio erreferentzia.

Horri dagokionez, Nafarroako Gobernuo kontseilari naizen aldetik, Legegintzaldirako Akordioari lotzen natzaio, bai eta 2019ko irailean Parlamentuan egindako agerraldian adierazitakoari ere, zeina parlamentari jaunak duen dokumentu batean jasota baitago; hitzez hitz honela:

“Espetxe-eskumenak: horiek pixkanaka beren gain har daitezen sustatzea, Foruaren Hobekuntzak ezartzen duena betez. Nafarroak, esparru horretan, egoera bereziki ona du, ezarpena eta esperientzia duten gizarte-ekimeneko entitateak baititu, eta horien ekarpena, Zigor Kodean, ELOOn eta Espetxeen Erregelamenduan zigorra betearazteko aurreikusitako mekanismoen bitartez bideraturik, erraztu egingen luke legeak askatasunaz gabetzeko zigorrari esleitzen dizkion gizarteratze-helburuak betetzea, eta, gainera, hura ezartzen zaion gizartearen inplikazio ardurasua sustatuko luke”.

Ondoren, honako hau aipatzen da konpromiso gisa:

“Erakunde arteko eta diziplina anitzeko lantalde bat eratzea, espetxeen eredu propio bat diseinatzeke, ELOOren eta Espetxeen Erregelamenduaren esparruan, arlo horretako eskumenak bere gain hartzea ahalbidetzeko”.

Hau da: otsailean aurkeztu genuen lerro estrategikoen dokumentua, parlamentari jaunak ezagutzen duena, urrats bat da egin beharreko bidean, beharrezkoa denean Nafarroak espetxe-arloko eskumenak bere gain hartu ahal izateko, Foruaren Hobekuntzan ezarritakoa betez. Eskumen horiek hartzen direnean, kontuan hartu beharko dira legeak askatasunaz gabetzeko zigorrari esleitzen dizkion gizarteratze-helburuak betetzea errazteko helburu horiek.

Nafarroan zigor-betearazpenaren eredurako ildo estrategikoen dokumentu horretan, gainera,

gaur egungo egoera islatzen da, eta Nafarroako Gobernuak presoen behar espezifikoak erantzuteko egindako ibilbidearen errebasoa ere egiten da, bai osasunari, bai hezkuntzari, bai gizarte-eskubideei dagokienez.

Ildo estrategikoen dokumentu horrek, gainera, gauzatu nahi duguna azpimarratzen du, eta dagoeneko gauzatzen ari gara. Parlamentari jaunaren beste galdera bati erantzunez, berariaz nabarmendu ditut Zigor Betearazpeneko eta Justizia Errestauratiboko Zerbitzu sortu berriak jada abian jarri dituen ekintzak.

Ez dagokit niri beste departamentu batzuen ekintzen balantzea egitea, are gutxiago aurreko legegintzaldikoak badira; eta, bestalde, Justizia Zuzendaritza Nagusiak abian jarritako neurriak dagokienez, 2015-2019 aldian egindako ekintzen balantze laburra daukazu 10-19PEI-00258 informazio-eskaerari emandako erantzunean.

Hori bai niri dagokit esatea haiekin elkarlanean ari garela hobetzen jarraitzeko. Zure beste galdera batzuei erantzunez, dagoeneko adierazi dizugu elkarrekin lan egiteko zer talde sortu ditugun.

Era berean, berriz diot gure helburua dela ahalik eta lasterren beste hitzarmen bat sinatzea, Espetxe Erakundeetako Idazkaritza Nagusiaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko lankidetzaz

instituzionalizatzeko, kontuan hartuta gaur egungo eskumenak eta Nafarroak historikoki izan dituenak (1989ko hitzarmenaren eguneratzea).

Orain Zigor Betearazpenaren Zerbitzu berri hori sendotu behar da: Nafarroako gizarte osoaren segurtasunean eragina duen zerbitzu bat, espetxeratuak (300 inguru) ez ezik, zigor eta neurri alternatiboetara kondenatutako pertsonen gizarteratzea ere hobetzen baitu (2.000 inguru, kondena-eteteen, gizarteratze lanen eta pertsona ez-egozgarriei ezarritako segurtasun-neurrien artean).

Eta hori guztia egiten dugu hobetu beharra ezinbestekoa izateari buruzko konbentzimendu politiko eta humanotik abiatuta. Eta, halaber, batez ere presoekin lan egiten duten entitateen proposamenak entzuteko eta aintzat hartzeko jarrerarekin. Horregatik sortu berri dugu Espetxe Mahaia, parlamentari jaunak zalantzarik gabe ezagutzen duena.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 21ean

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Galdera, zigor betearazpenaren eredu berriari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, zigor betearazpenaren eredu berriari buruzkoa. Galdera 2021eko apirilaren 30eko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak galdera egin du (10-21/PES-0157) "zigor betearazpenaren Nafarroako ereduaren ildo estrategikoak" izeneko dokumentuak jasotzen dituen zigor

betearazpenerako exekuzio-ereduaren ildo estrategikoei buruz. Hona Nafarroako Gobernuak lehendakariak ematen dion informazioa:

Dokumentuak berak adierazten duen bezala, ez dago itxita; aitzitik, zabalik dago gizarte osoak haren gainean eztabaidatu eta hobekuntzak egiteko. Horrenbestez, ez da behin betiko dokumentua.

Legegintzaldirako akordioak dioten bezala: "Zigor Arloko Betearazpen Bulego bat sortzeko aukera aztertuko dugu, askatasun-galera ez dakarten zigorrak eta neurriak kudeatzeaz arduratu dena, hala nola askatasun partzialeko egoeran eta baldintzapeko askatasunean dauden pertsonen Birgizarteratze Sarea koordinatzeaz. Era berean, pixkanaka bereganatuko ditu eskuduntzak zentroen funtzionamenduaren alorrean, eta epe ertain eta luzeko tratamendu-programen diag-

nostikoan, sailkapenean, diseinuan eta betearazpenean”. Printzipio horien barruan kokatzen dugu gure gobernu-ekintza.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 21ean.

Nafarroako lehendakaria: María Chivite Navascués

Galdera, “Ega-Urederra ibaiak” izeneko Batasunaren Garrantzizko Lekuko Kontserbazio Bereziko Eremuaren (KBE) kudeaketa-gastuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “Ega-Urederra ibaiak” izeneko Batasunaren Garrantzizko Lekuko Kontserbazio Bereziko Eremuaren (KBE) kudeaketa-gastuei buruzkoa. Galdera 2021eko apirilaren 30eko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Ega-Urederra ibaiak” izeneko Batasunaren Garrantzizko Lekuko Kontserbazio Bereziko Eremuaren (KBE) kudeaketa-gastuei buruz (10-21-PES-00158). Hori dela eta, hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

1. Martxoaren 8ko 16/2017 Foru Dekretua onetsi denetik zein dira Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak edo Gobernuaren gainerako departamentuek ekipamenduak eta kudeaketaren egitura mantentzera urtero bideratu dituzten zenbatekoak?

Gaur egun, ez dago ekipamendu espezifikorik, eta kudeaketa-gastuak Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren bitartekoekin eta Nafarroako Gobernuaren beste baliabide batzuekin ordaintzen dira.

2. Martxoaren 8ko 16/2017 Foru Dekretua onetsi denetik zein kalte-ordaini egin behar izan die aurre Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak kudeaketa planean jasotako erabilera eta jarduerak mugatzearen ondorioz?

Orain arte ez da mugarik egon erabilerei eta jarduerari dagokienez, eta, beraz, ez da kalte-ordainik ordaindu.

3. Martxoaren 8ko 16/2017 Foru Dekretua onetsi denetik zein dira Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak edo Gobernuaren gainerako departamentuek gunearen kontserbazio egoera ona bermatzen duten mantentze eta lehengoratzeko proiektuak gauzatzera urtero bideratu dituzten zenbatekoak?

4. Martxoaren 8ko 16/2017 Foru Dekretua onetsi denetik zein dira Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak edo Gobernuaren gainerako departamentuek KBE horren kudeaketa plana gauzatzera eta haren helburuak betetzera urtero bideratu dituzten zenbatekoak, aurrekontuko partidez gain?

Jarraian, 3. eta 4. galderari batera erantzunen diegu:

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak eta Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuek, Ega-Urederra ibaiak KBEa kudeatzeko planari dagokionez, guztira 35 neurri edo jarduketa gauzatu behar dituzte 12 urteko indarraldirako (2029an amaituko litzateke), arautan epe hori ezarri baitzen. Jarraian, erabat edo partzialki gauzatu direnak azalduko ditugu.

Toki horren kudeaketa-plana onetsi aurretik egindako ekintzak sartzen dira, kudeaketa-plana eragin zuten oinarri teknikoak prestatzean egindakoak, espazioaren funtsezko helburu eta elementuei dagozkienak.

Jasotako kostuetan ez da zehazten jarduketak gauzatzera bideratutako baliabide propioen zenbatekoa. Nafarroa osorako horizontalki garatzen diren ekintza batzuetarako, ezin izan dugu bereizi leku horri dagokion zatia; beraz, guztizko kostuaren datuak emanen ditugu.

Foru Dekretuko neurriaren kodea	EKINTZAREN AZALPENA	GAUZATZE ALDIA	GAUZATZEAREN GASTUA (euroak, BEZa barne)	FINANTZAKETA-ITURRIA
1.1.	Landaredi naturaleko zerrendarik gabeko eremuetan edo eremu andeatuetan dauden ibai bazterrak lehengoratzeko proiektuak erredaktatu eta gauzatzea.	2009	150.000,00 €	Nafarroako Gobernua eta "La Caixa" GIZARTE EKINTZA
1.4.-1.5	Defentsa azpiegiturak (lubetak eta harri-lubetak) kendu eta/edo atzeratzeko proiektuak prestatu eta gauzatzea. Dauden presa guztien kontzesioen egoera ebaluatzea, gainditu ezinako oztopoak iragazkortzea eta eraisteko aukera ebaluatzea.	2008	117.000,00 €	"La Caixa" GIZARTE EKINTZA
		2010	30.259,37 €	Nafarroako Gobernua
		2013	64.750,37 €	
		2015	110.943,59 €	
2016	7.260,00 €			
1.7.	Ebroko Ur Konfederazioari jakinaraztea iktiofaunaren eskakizunez gain, ibaietako habitaten eskakizunak ere kontuan har ditzan emari ekologikoak edo ingurumenekoak zehazterakoan, haien kontserbazioa bermatzeko.	2020	Baliabide propioak	Nafarroako Gobernua
2.1.	Lekuaren mugaketa berrian sartutako habitaten eremu berrien inbentarioa eta kartografia egitea.	2017-2018	3.454,55 €	Nafarroako Gobernua
3.5.	Nafarroako Gobernuak ugatzari buruz urtero egiten dituen monitorizazio lanekin segitzea.	Urtero.	Baliabide propioak.	Nafarroako Gobernua
3.6.	Nafarroako Gobernuak sai arrearen, sai zuriaren eta belatz handiaren populazioei buruz egiten duen jarraipenarekin segitzea.	2014	18.150,00 €	Nafarroako Gobernua
		2018	Baliabide propioak + 8.726,40 euro (Europak kofinantzatua)	Nafarroako Gobernua / POCTEFA ECOGYP
		2019	Baliabide propioak + 24.432,60 euro (Europak kofinantzatua)	
3.8.	Harkaiztietan eta inguruetan egindako kirol jarduerak Lekuaren kontserbazio helburuetan duten eraginari buruzko azterlan bat egitea, eta, kasua bada, "Urederraren iturburua" natura erreserban dagoen kirol ekipamendua kentzea.	2013	12.500,00 euro.	Nafarroako Gobernua
3.12.	Nafarroako Gobernuak egiten dituen igaraba arruntaren laginketak mantentzea.	2020	742,71 €	Nafarroako Gobernua

Foru Dekretuko neurriaren kodea	EKINTZAREN AZALPENA	GAUZATZE ALDIA	GAUZATZEAREN GASTUA (euroak, BEZa barne)	FINANTZAKETA-ITURRIA
3.16.	Bisoi amerikarraren eta fauna exotiko inbaditzailearen beste espezie batzuen segimendua eta kontrola egin eta desagerrarazteko neurriak mantentzea.	Urtero.	Baliabide propioak / Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa, Tragsatec enpresaren bitartez.	Nafarroako Gobernua / Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa
		2015 (Nafarroa osorako)	19.260,78 euro	Nafarroako Gobernua / LIFE IREKIBAI proiektua eta Interreg Poctefa H2O Gurea.
		2016 (Nafarroa osorako)	14.284,65 euro	
		2017 (Nafarroa osorako)	26.280,93 euro	
		2018 (Nafarroa osorako)	26.280,93 euro	
		2019 (Nafarroa osorako)	686,51 euro	
		2020 (Nafarroa osorako)	26.280,93 euro	
3.17.	Saguzarrek tokian eta ingurunean negurako eta hazierarako dituzten kolonien zentsuak egitea aldiari aldian.	2006; 2019-2020-2021 (gauzatzen ari da)	Kontratuaren zenbatekoa honako hau izan da 2019an, 2020an eta 2021ean: 36.930,00 euro (BEZa barne). Nafarroa osorako. Gauzatzeko dago eta 2021ean ordainduko da.	Nafarroako Gobernua
3.19-3.20.	Saguzarrentzako Acedoko aterpe kolonialetan egokitzapen neurriak egitea, gehiago hartzeko tokia izan dezaten.	2014	12.066,68 €	Nafarroako Gobernua
		2015	1.815,76 €	Ingurumeneko boluntarioekin gauzatzea / Nafarroako Gobernua
4.1.	Mehatxatutako flora populazioen presentzia eta kontserbazio egoera zehazteko prospekzioak egitea.	Urtero.	Baliabide propioak.	Nafarroako Gobernua
5.1.	Urbasa-Andia natura parkearen planifikazioan eta kudeaketan jarraibideak aplikatzen eta erabilera publikoko neurriak garatzen segitzea. (RN -14 Urederraren iturburua)	2008	73.900,00 €	"La Caixa" GIZARTE EKINTZA
		2008	120.090,00 €	Nafarroako Gobernua (Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentua)
		2014	98.195,00 €	
		2017-2019	42.387,32 €	Nafarroako Gobernua (Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua)
		2017	29.222,00 €	
		2018	59.074,50 €	
		2019	55.074,13 €	
2020	58.918,97 €			

1. taula "Ega-Urederra ibaiak" Kontserbazio Bereziko Eremuan egindako jarduketan neurrien banakapena

Aurreko taulan jasotakoaren osagarri, eta "Ega-Urederra ibaiak" KBEari buruzko 16/2017 Foru Dekretuko IV. puntuan ("Kudeaketarako jarraibide edo orientazioak") jasotako IV.5 jarraibideari jarraituz, 2017an iraupen luzeko punpatze-entsegu bat egin zen, eta eredu hidrogeologiko bat landu zen, Antzingo sektoreko (Ega Ibarra) akuiferoaren ustiaketa arrazionalari euskarria emateko. Horren zenbatekoa 65.502,14 eurokoa

(BEZa barne) izan da, Nafarroako Gobernuak finantzatua.

Hona hemen taula bat, KBEaren foru-dekretua onartu zenetik 2017a baino lehen eta urtero gauzatutako neurrien kodeak jasotzen dituena:

Iruñean, 2021eko maiatzaren 13an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

URTEAK	16/2017 FORU DEKRETUKO NEURRIAK														
	1.1.	1.4.	1.5.			3.5.	3.6.	3.8.	3.12.	3.16.	3.17.	3.19.	3.20.	4.1.	5.1.
2017a baino lehen															
2017					2.1.	3.5.			3.12.	3.16.					5.1.
2018					2.1.	3.5.	3.6.		3.12.	3.16.					5.1.
2019						3.5.	3.6.		3.12.	3.16.	3.17.			4.1.	5.1.
2020				1.7.		3.5.			3.12.	3.16.	3.17.			4.1.	5.1.
2021						3.5.			3.12.	3.16.	3.17.				5.1.

2. taula Neurrien eta jarduketan zerranda, gauzatze-urteen arabera

* Martxoaren 8ko 16/2017 FORU DEKRETUA "Ega -Urederra ibaiak" izeneko Batasunaren Garrantzizko Lekua Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu, haren kudeaketa plana onetsi, eta "Urederraren iturburu" (RN-14) eta "Lasiako erreka-zuloa" (RN- 13) natura-erreserbak erabili eta kudeatzeko plan zuzentzaileak eguneratzen ditu.

Galdera, Allozko (Deierri) lurzatiak biltzeko prozesuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Allozko (Deierri) lurzatiak biltzeko prozesuari buruzkoa. Galdera 2021eko apirilaren 30eko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Allozko (Deierri) lurzatiak biltzeko prozesuari buruz (PES-159). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Zertan da Allozko (Deierri) lurzatiak biltzeko prozesua?

Allotz-Motalbango lurzati berrantolamendua 2008-01-11n eskatu zuten inguruko lurzati jabeek, Deierriko Udalak 2008ko urriaren 31ko Osoko Bilkuran eta Allozko kontzejuak 2010eko ekainaren 17ko bilkuran horretarako baimena eman ondoren.

Landa Garapeneko zuzendari nagusiaren ekainaren 10eko 1193/2010 Ebazpenaren bidez, hasiera eman zitzaion Allotz-Motalbango lurzati berrantolamenduko eskualdeko nekazaritza-azpiegituretako jardueri.

Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiaren martxoaren 9ko 289/2012 Ebazpenaren bitartez Allotz-Motalbango lurzati berrantolamendua-aren gaineko ingurumen-inpaktuaren adierazpena eman zen.

Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusiaren irailaren 11ko 700E/2018 Ebazpenaren bidez, baliozkotu egin zen Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiaren martxoaren 9ko 289/2012 Ebazpenaren bidez emandako ingurumen-inpaktuaren adierazpena

Maiatzaren 22ko 63/2019 Foru Dekretuaren bitartez, onetsi egin zen nekazaritzako azpiegituretan esku hartzea Allotz-Montalban eremuko lurzati berrantolamenduaren bidez.

Landa Garapeneko zuzendari nagusiaren urriaren 29ko 94/2019 Ebazpenaren bidez, onetsi eta argitara eman ziren Allotz-Montalbango eskualdeko lurzati berrantolamenduaren oinarriak.

Abenduaren 31ko 1304/2020 Ebazpenaren bidez, Tecnologías y Servicios Agrarios SA (TRAGSATEC) ente instrumentalari enkargatu zitzaion Nekazaritza Azpiegituren Zerbitzuko langileei laguntza teknikoa ematea Allotz-Montalban eskualdeko lurzati berrantolamenduko akordioa idatzi aurreko lanak egiteko.

2021eko otsailaren 1ean, Allozko kontzejuan jendaurrean jarri zen lurzati berrantolamenduaren aurreiazko akordioa, otsailaren 22tik 26ra bitartean horri buruz sor zitezkeen arazoak kontuan hartuta.

Lurzati berrantolamenduaren oinarrien aurka aurkeztutako errekurtsioak ebatzi ondoren, Nekazaritzako Azpiegituren Zerbitzuko zuzendariak oinarri horiek irmotzat jo zituen 2021eko apirilaren 15ean.

Gaur egun, Lurzati Berrantolamenduaren Akordioa egiteko Laguntza Teknikoari buruzko 1304 Ebazpenaren aldaketa izapidetzen ari da, Akordioa egiteko Laguntza Teknikoko lan guztiak barne har ditzan. Aurreikusita dago akordioa egiteko lanak 2021eko azaroaren 30a baino lehen amaituta egotea.

Zer epe aurreikusten dira obra zibila hasi eta bukatzeari dagokienez?

Honako hauek dira aurrera begirako aurreikuspenak:

– Akordioa egiteko lanen enkargu osoa onestea: 2021eko uda baino lehen.

– Lurzati berrantolamenduari buruzko behin betiko akordioa onestea eta jendaurrean jartzea: 2021eko udaren hasieran.

– Finken zuinketarako enkargua onestea: 2021eko uda amaierarako.

– Finka berrien behin-behineko jabetza hartzea: Jabeek eskatzen badute, 2021eko urriaren 31 baino lehen behin-behineko jabetza-hartzea egiten saia daiteke. Baina zalantza dago hori posiblea izanen ote den, akordioa onartzearen aurka aurkeztu diren errekurtsioen kopuruaren arabera izanen baita. Horrela, behin-behineko jabetza-hartzea data horietan egin liteke, baldin eta errekurtsogileen kopurua ez bada eremuko jabe guztien % 5 baino handiagoa eta ez bada, guxtienez, pilatutako azaleraren ehuneko bera. Bestalde, 2021eko urrian behin-behineko jabetza-hartzea egiten bada, uste da bideak eta hustubideak eraikitzea ez dela oztopo gaindiezina izanen hurrengo bi urteetan finka berriak landatzeko, nahiz eta horrek eragozpenak eta arazoak sortuko lituzkeen finketara iristeko, eta baita jarduketaren eremua drainatzeko arazoak ere.

– Obra-proiektua egitea: enkargua 2021eko udan egin behar da, 2022ko erdialdean erredakzioa amaituta egon dadin.

– Obren hasiera: 2022ko amaieran.

– Obraren amaiera: 2024ko amaieran.

Lurzati Berrantolamenduaren Bulegoko buruaren txostena erantsi da.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 10ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

